

## DATORRENA

Sakoneko Estatuak «cameo» bat egin du Hexagonoan MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

TURKIA: Uigur etniako ume musulman askok Erdoganen ondoan topatu dute babesa > 4

2020ko urtarrilaren 25a | XIV. urtea • 656. zbk.  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## HERRIAREN OIHUAK PARETETAN HARRAPATZEN DITUENA

LEITZAKO ATEKABELTZA ETXEKO MURALA MUNDUKO EHUN ONENEN ARTEAN SARTU DUTE. EGILEA LIAN DA, EUSKAL HERRIAN BIZI DEN KATALANA. STREET ARTISTA, EMAKUMEA ETA MUGIMENDU SOZIALEN TAUPADA MAITE DUENA. > 12 MURALES LIAN



**Uigur etniako ume askok Turkian aurkitu dute babesa** 04

**Milioika lagun zoratuta eta oso esplikazio gutxi** 07

**Egiptoko 2011ko protesten urteurrenean, beste iraultza bat nahi dute** 08

**Lian: «Paretek oihu egiten dute»** 12

**Politikoa: laboral eta soziala** 16

**Sarean** 18

**Elkarrizketa: Iñigo Legorburu** 22

**«IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan», UEUren eskutik** 26

**In fraganti: Haizea Alonso** 28

**Juantxo Egañaren behatzulotik** 31



## SINADURAK:

**03 Maite Ubiria Beaumont:**

Sakoneko estatuak «cameo» bat egin du Hexagonoan

**10 Ander Gortazar Balerdi:**

Palmondoa

**11 Mikel Zubimendi:** Herri

ezberdina bagara, apustu ezberdina behar da

**17 Amaia Ballesteros**

**20 Gorka Zozaia:** Bisurte berri on!

**21 Amaia Nausia Pimoulier:**

«Mogambo»

**25 Amagoia Mujika Telleria:**

Voxekeriak

**25 Xabier Mikel Errekondo:**

Zaindaria lapur

**30 Garazi Goia:** Amaren pisua



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

# Sakoneko Estatuak «cameo» bat egin du Hexagonoan

Iragan urteko urtarrilean Christophe Castanerrek iragarpen bat egin zuen. Txaleko Horien mugimenduak astero-astero karrketan aitzina zeramatzan protestak ekiditeko Poliziak baliaturiko moldeek zeresana ematen zuten ordurako eta frantziar Barne ministroak komunikazioaren magia baliatu zuen zauritutako herritarren irudiek sortzen zuten zirraren eragina mugatzeko. Lola Villabriga ikasle gaztea Biarritzen larriki zauritu zuen LBD motako gomazko pilota edo Antoine Boudinet baionarrari eskuineko esku txikitu zion GLI F4 granada bezalako munizioak debekatu orde, zera iragarri zuen Castanerrek, handik aurrera poliziek soinean kamera bat eramango zutela manifestazioetan gertatzen zen guztia grabatzeko. Urtebete igaro denean, aste honetan bertan prentsa frantsesak kargu hartu dio ministroari. “Le Canard enchaîné” astekariak plazaratu duenez, 2,3 milioi kostatu zen egitasmoa iruzur hutsa izan zen. 10.000 kameratik gora erosi zuen Ministerioak, baina horietatik gehienak komisaldegietako apalategietan gelditu ziren, matxuraren batengatik edota polizia arduradunek materiala egokia ez zelakoan alboratu zutelako. Berriak hautsak harrotu ditu, Castanerren inkompetentzia agerrarazteaz gain, berriki Emmanuel Macronek berak polizien deontologiari buruz eginiko oharrari sinesgarritasun osoa kentzen diolako.

Gogoratzearen, Macronen gordea astindu duen eskandalurik handienak, “Benalla auziak”, irudiek izan dezaketen garrantzia frogatu zuen. “Mediapart”-en bidez lekuko batek aferari buruz eman dituen xehetasunak jaso ditugu: Macronen bizkartzain kuttun zenak bildutako informazio delikatua gordetzen zuten balizak berreskuratzeko operazioan Eliseoko agenteak inplikatu ziren, antza. «Macrongate»-ren enegarren kapitulu iluna kameraz jositako eremu ofizialetan gertatu zenez, nor daki, agian baten batek irudiak hartu zituen?

Bestalde, kamera batek susto handia eman dio polizia «armazale bati» Frantziako iparraldean. Kasu horretan, Arras hirian dagoen armak indargabetzeko zentroan polizia komandante batek osatu zuen legez kanpoko armategia zelatatzeko balio izan zuten kamerek. Heldu den apirilean izanen du epaiketa; besteak beste, gizarte zibilaren laguntzaz 2017ko apirilaren 8an Baionan burutu zen desarmatze ekimena bere mesedetan baliatu zuen poliziak. 200 bat herritarrek ETarenak izandako armak gordetzeko arriskua hartu zuten egun historiko hartako egunsentian, biltegi horien kudeaketa frantziar administrazioaren esku utziz. Iraganean, lardaskeriaren aitzakiaz, historia pasadizo zinez larriak gutxietsi izan diren bezala, 150 bat armaren lapurreta bitxikeriatzat hartzeko tentazioa egon daiteke. Oraingoz, aferak zera utzi du age-

Kamerek erakutsi zuten Macronen zirkulu hurbileko kide zen Benallak kontrolik gabeko boterea zuela, baita kontrolpean behar zuketena ETak utzitako armek polizia baten esku bukatu zutela ere

rian, euskal herritarrek bakea eraikitze bidean ezinbestekoa zen armagabetzean estatu ordezkariak baino ardura handiagoz jokatu zutela.

Akatsak, txapuzak, gehiegikeriak.. nozio lasaigarriak baliatu baino, ezinbestekoa dirudi estatuaren arrazoia- ren eroale den polizia sistema horren erro sakonak azter- tzeak eta berria ez bada ere, gaur-gaurkoz, Macronek bere agenda autoritarioa aurrera eramateko bidean indarkeria ofizialak betetzen duen funtzio nabarmenari buruz eztabaida pizteak. Polizien biktimen bilduma Twitter bidez egin duen David Dufresne kazetariak idatzita- ko “Dernière sommation” liburua irakurtzea gomenda- garria izan daiteke gogoetarako abiapuntu gisa. •



# TURKIA

## Uigur etniako ume musulman askok Erdoganen ondoan topatu dute babesa

**I**stanbul hiriko kanpoaldean kokatuta dagoen ikastetxe batean, Txinatik ihes egitea lortu zuten uigur etnia musulmaneko umeek beren hizkuntza eta kultura ikasteko aukera dute, baina horietako askok beren gurasoak «berreziketa eremuetan» giltzapetuta dituzte. ICIJ Ikerketa Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak orain bi hilabete plazaratu zuen salaketaren arabera, milioi bat uigur baino gehiago dituzte leku horietan.

Txinak Xinjiang probintzia deitzen dion lurraldea (ipar-mendebaldean) Ekialdeko Turkestan da uigur etniakoentzat. Bertan musulmanek jasaten duten jazarpena atzean utzi eta ihes egitea lortu zuten ume asko Turkiara iritsi ziren. Bertan musulmanek jasaten

**JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Txinak Xinjiang probintzia deitzen dion lurraldea Ekialdeko Turkestan da uigur etniakoentzat. Bertan musulmanek jasaten duten jazarpena atzean utzi eta ihes egitea lortu zuten ume asko Turkiara iritsi ziren. Horietako askoren gurasoak «berreziketa eremuetan» ezkutatuta dituzte Txinako agintariek.

duten jazarpena atzean utzi eta ihes egitea lortu zuten ume asko Turkiara iritsi ziren. Haien gurasoek uste zuten tartera beren lurraldera itzultzeko aukera izango zutela hau-

**Txinatik Istanbulera etorritako umeak, uigurreraz ikasten.**  
Ozan KOSE | AFP

rrek. Baina Pekingo agintariek «berreziketa eremu» moduan aurkeztu zituen zentroetan giltzapetutako herritar horiek desagertu egin direla dirudi.

Istanbulen ikastetxean

dauden ehun ikasleetatik, hogeita bostek eremu horietako batean dituzte gurasoak, eta beste zazpiren amak hil egin dira, Habibullah Kuseni zuzendariak eman dituen datuen arabera.

Fatima uigurra da eta bederatzirentzako urte baino ez ditu. Bere aita eta jaioterrria nekez gogoratzen ditu. Gogoan du txikiagoa zenean aitaren ondoan jarrita egoten zela telebistari begira. Jakina, umeak marrazki bizidunak ikusi nahi zituen, baina aitak albistegia jartzen zuen, Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidentearen inguruko berriak entzun nahi baitzituen. Izan ere, turkiarra da uigur etniakoekin bat egin



duen herrialde musulmanetako agintari ia bakarra, nahiz eta badakien Pekin haserretu egingo zaiola.

Turkian bizitzen hasi zirenean, Fatimaren aita askotan joaten zen Txinara, lanera. Orduan inork ez zeukan «berreziketa» zentro horien berririk. «Eta bat-batean, egun batean desagertu egin zen –esplikatu du neskatzak, malako artean–. Etxera bueltatuko zela pentsatu nuen, baina horrelakorik ez zen gertatu». Hiru urte daramatzate aitaren berririk jaso gabe.

Uigur herriaren aldeko ekintzaileek egin dituzten kalkulu arabera, hedabideek aipatzen duten giltzapetuen kopurua baino askoz ere handiagoa da benetan eraman zizutenena. Iturri horren arabera, Txinak tankerako ehunka eremu zabaldu ditu, 500dik gora hain zuzen ere.

#### ESPETXE MODUKOAK

«Berreziketa eremu» horien inguruko lehen informazioa 2017an argitaratu zen. Txinako agintariak ezezkoari eutsi zioten hasiera batean, gero beren diskurtsoa zertxobait aldatzeko. Horrelako eremurik ez zegoela esatetik, «lanbide-heziketa zentroak» egon bazeudela onartzera pasa zen. Hori bai, «estremismoaren aurkako borroka» zen instalazio horien helburua eta bertan sartuta zeuden guztiak era boluntarioan joan ziren, betiere Pekinek plazaratu zuen bertsio ofizialaren arabera.

Nazioarteko hainbat hedabidek ezagutzera eman zituzten dokumentuek beste egoera bat margotzen dute, ordea. Horien arabera, zentro horiek espetxe moduan kudeatuta daude eta beren helburu nagusia bertara eramandakoek

Indonesiako Islamic Defender Fronteko ekintzaileek joan den abenduaren 24an Banda Aceh hirian uigurren alde egindako mobilizazioan erakutsitako pankarta. Ozil futbolariaren eta Khabib Nurmagomedov errusiar (Dagestangoa) borrokalariaren mezuak eskertu dituzte Acehkoek.  
Chaideer MAHYUDDIN | AFP



## AGINTARI MUSULMANEN ISILTASUNA SALATU ZUEN OZIL FUTBOLARI ALEMANIARRAK

«Uigur libre, Hong Kong libre» esaten zuten kolonia ohiko manifestariak orain hilabete inguru. «Txinaren ustezko autonomia genozidio bat baino ez da». Ehunka lagun elkartu zituen manifestazioak eta azkenean uniformedunekin borrokan aritu ziren, azken hilabeteotan behin baino gehiagotan gertatu bezala.

Egun haietan giroa bero-bero zegoen Txinan, Mesut Ozil turkiar jatorriko alemaniar futbolariak Pekingo agintarien jarrera sare sozialetan salatu egin baitzuen. Arsenal talde ingeleseko jokalariek «jazarpenari aurre egiten dioten gudariak»

deitu zien uigurrei. Ozilek, Txinako Gobernuak gutxiengo musulman horri ematen dion egurra salatzeaz gain, egoera horren aurrean agintari musulman gehienek gorde duten isiltasuna ere salatu zuen.

Uigur etniakoen sufrimenduari bat egin dute Hong Kongeko manifestariak. «Nik uste dut oinarrizko askatasuna eta independentzia pertsona guztiok izan beharke genituzkeela, ez Hong Kongeko biztanleok bakarrik», adierazi zien bertan ziren kazetariak Wong abizeneko 41 urteko manifestariak. Senarrarekin batera joan zen mobilizazioa.

uigur etniaren kultura eta erlijioa ahaztea da. Txinako beste gutxiengo musulman batzuekin ere gauza bera egiten du Pekinek. Iazko azaroan Washingtonen egoitza duen mugimendu batek Google Earth aplikazioko Atlas Digital zerbitzuak eskaintzen dituen irudiak aztertu zituen eta ondorioztatu zuen Txina osoan 182 «kontzentrazio eremu» daudela zabalik.

Ekialdeko Turkestanen Ber-

pizte Nazionalerako Mugimenduak 500 «atxilotze eremu» ingururen berri eman du asteotan, tartean «182 kontzentrazio eremu, 209 presondegi eta 74 derrigorrezko lan eremu». Hori horrela balitz, atxilotutako uigurrak uste baino askoz ere gehiago lirarteke, hiru milioi pertsona inguru. Milioi bat edo hiru izan, James Leibold aditu australiarren ustez, filtrazioek argi uzten dute dokumentuetan aipatu-

takoak «heziketa zentroak izatetik oso urrun ez, baizik eta antipodetan» daudela.

Turkian beren lurraldean bertan lortu ezin dezaketena dute uigurrek. Etnia horretako 50.000 pertsona bizi dira Erdoganaren herrialdean, horietako gehienak Fatima bezala, umeak. Horien guztien bizitza erabat aldatu du Pekingo agintariak abian jarritako kanpainak. Eta okerrenera da askok beren gurasoan arrastorik ez

dutela, informazio eske nora jo ere ez dakitela.

Tursunay izeneko neska gazteak 15 urte besterik ez ditu. Bere gurasoak 2017ko uztailean desagertu ziren bere bizitza. Hasiera batean Pekingo agintariak pasaporteak kendu zieten, baina gurasoek umeari esan zioten lasai geratzeko. «Guregatik ez zaitez kezkatu», adierazi zioten Tursunayri telefonoz izandako elkarrizketan. Geroztik, ezer ez. Isiltasu-





na. Hutsunea.

Hamabost urteko uigur honek gogoan du Txinan nola bizi zen. Ez du inoiz ahaztuko goiz batean aitari galdetu ziola ea zergatik jarri ote zituzten kamerak beren bizitokiko sarreran. «Musulmanak garelako», erantzun zion. Gauzak nola zeuden ikusita, erlijioarekin lotura duten makina bat gauza eta CD diskoak erre egin zituen gizonak. Hala ere, eraman egin zuten, «berreziketan» hasteko.

Tursunayren mundua erabat aldatuta dago. Erbestean aurkitu duen «famiak» duen lagun zahar baten laguntza baino ez du bera eta bere ahizpa txikia zaintzeko, aurrera ateratzeko. Ez dira egoera horretan dauden ume bakarrak.

Xinjiang probintzian bertan ere gurasorik gabe geratu diren haur ugari bizi dira, ozta-ozta bizi behar badira ere. Ka-

su batzuetan helduak Txinatik ihes eginda daude. Beste batzuetan, agintarien esku, eremu sekretu horietan.

Human Rights Watch AEBetan egoitza duen gobernu kanpoko erakundeak egiten duen irakurketaren arabera, gurasorik gabeko uigur horiek Estatuak berak kudeatzen dituen zentroetan bizitzera behartuta daude. Umearen senideek ez dute txikiaren berririk. Ez dago bisitarik. Ezta giza eskubiderik ere.

**Gogoan du Txinan nola bizi zen. Ez du inoiz ahaztuko aitari galdetu ziola ea zergatik jarri ote zituzten kamerak beren etxeke sarreran. «Musulmanak garelako», erantzun zion**

**Human Rights Watch erakundeak egiten duen irakurketaren arabera, gurasorik gabeko uigur horiek Estatuak berak kudeatzen dituen zentroetan bizitzera behartuta daude**

Istanbulen bizi diren uigur etniako umeak, otoitz egiten.  
Ozan KOSE | AFP

Eskuineko irudian, ehunka lagunek Istanbulen Khatib plazan joan den abenduaren 20an egindako manifestazioa.  
Ozan KOSE | AFP







Nicolas ASFOURI | AFP

## IKUSMIRA

# MILIOIKA LAGUN ZORATUTA ETA OSO ESPLIKAZIO GUTXI

Txinako 20 milioi lagun berrogeialdian jarri dituzte, auto baten matrikula dirudien izena duen koronabirusaren eraginez: 2019-nCoV. Wuhan (11 milioi biztanle) eta ondoan dagoen Huanggang (7 milioi) dira ezin irten eta ezin sartu geratu diren hiririk handienak. Tele-

bista kateek eskaini dituzten irudiek, azken urteotan gero eta maizago egiten diren hondamendien ondoko serietakoak ekartzen dituzte gogora. Txinako Urte Berriko ospakizunik gabe geratu dira milioika lagun. Pekin hiriburuko Hiri Debeakua bera ere itxi egin dute. Zergatik? Eztula, sukarra eta arnasa hartzeko zailtasunak eragiten dituen birus batengatik? Osteguneko datuen arabera, 600 pertsona inguru zeuden kutsatuta, eta horietako 17 zendu ziren. 17 besterik ez! Osasunaren Mundu Erakundeko adituak zein neurri hartu erabaki ezinik egon dira. Erakundeak Pekini orain 18 urte egindako errietak eragin al du egungo alarma? [joseangel.oria@gaur8.info](mailto:joseangel.oria@gaur8.info)



# EGIPTO

## Beste iraultza bat hasi nahi dute 2011ko protesten bederatzigarren urteurrenean

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

**A**bdel Fatah al-Sisi Egiptoko presidente kolpista inolako arazorik gabe biltzen da munduko beste agintariekin, berak agintea lortzeko erabili zuen teknika zilegi izango balitz bezala. Hedabide nagusiek ez dute salatze moduko gauzarik ikusten Al-Sisiren erreinuan, nahiz eta herritarrak orain bederlatzi urte bezain gaizki, edo okerrago, dauden. Orduan Hosni Mubarak garaiko presidentearen agintaldiari amaiera ematea lortu zuten manifestariak, eta hauteskunde garbiak egin ziren, behingoz. Baina egiptoarren erabakia, agintea Anaia Musulmani ematea alegia, ez zen boteretsuenen gustuko izan eta giroa pozoitu egin zuten, estatu kolpe bati atea zabaltzeko. Horrela iritsi zen Abdel Fatah al-Sisi presidente kargura, askatasunik gabeko hauteskunde bitartez egoera zertxobait zuritu ondoren.

«Etengabeko salbuespen-egoera» bizi du Egiptok azken urteotan, orain hilabete batzuk giza eskubideen aldeko ekintzaileek salatu zuten, eta egunotan inoiz baino garbiago ikusiko da Al-Sisiren lurraldean agintearen aurkako edozein adierazpen oso garesti ordaintzen dela.

### ASKO AL-SISIREN AURKA

«Asko gara Al-Sisiren aurka gaudenak», esan dio Efe berri agentziari Mohamed Ali enpresari eta aktoreak. «Faraoi» deitzen dioten egiptoar honi berri agentziak leporatzen dio Egiptoko presidentea egoera larrian jarri izana. Presidentearen ustelkeria salatze bideok egin zituen bere garaian, egiptoarrei kalera protesta egi-

2011ko urtarrilaren 25ean hasi ziren egiptoarrak Hosni Mubaraken aurkako lehen protestak egiten, Tunisiako eta beste herrialde batzuetako manifestariak erakutsitako bideari jarraituz. Bederlatzi urte igaro direnean, egoera erabat ustelduta dago eta oposizioko indarrek ezinbestekotzat jotzen dute beste iraultza bat.



Erregimenak protesta guztiak debekatuta baditu ere, azken boladan manifestazio ugari egin dira. AFP

tera irteteko eskatuz. Urrian plazaratu zuen azken lana, bere burua arrisku bizian ikusten zuela adierazteko.

Orain, beste erbesteratu batzuekin bat eginda, «Egipto salbatzeko» mobilizazio erraldoiak egiteko eskatzen du, orain bederlatzi urte izan zen giro iraultzailea berreskuratu nahian. Herbehereetako Hagatik egin du deialdia, hau da, nazioarteko justiziak duen egoitza nagusitik.

Hiri horretan elkartu direnek «Egiptoko ituna» sinatu dute, Al-Sisiren Gobernuari hankaz gora botatzea helburu duen dokumentua. Lehen puntuan gaurko manifestazioak deitzen dituzte.

### «IRAUULTZAREN ATARIAN GAUDE»

«Telenobelaren azken kapitulara iritsi gara. Iraultzaren atarian gaude. Trantsizio programa sinatuta dago, oposizioa mobilizatuta eta bat eginda, eta azken puntua baino ez zaigu falta: Egiptoko herriak berri kaleak hartzea. Orain herritarrek dute azken hitza. Guk ahal dugun guztia egin dugu», esan dio Egiptotik kanpo bizi den Ali enpresariak Imane Rachidi kazetariari.

Mohamed Alik esaten duena betetzea zaila dirudi, ordea, erregimen militarrek kalean jarri dituen segurtasun-indarrak ikusita. Tahrir plazaren inguruetan, esaterako, ehunka agente ezkutatu gabe daude, guztiak ikus ditzaten. Herritar askok jakinarazi dute Poliziak arrazoirik gabe geldiarazten dituela, eta telefono mugikorrean duten materiala begiratzeko dutela agenteek. Egipton debekatuta daude manifestazio eta protesta guztiak eta, norbait ausartuz gero, arazorik gabe emango zaio egurra. Epaileek bukatuko dute lana.





Aurrekariak topatzeko ez da urrutira joan behar. Orain lau hilabete, irailean, Al-Sisiren erregimenaren aurkako manifestazioak antolatuz ziren Kairo hiriburuan eta beste hiri batzuetan: 4.000 pertsona atxilotu zituzten, giza eskubideen aldeko elkarten arabera.

Iraultza egin nahi duen enpresariak 41 urte ditu eta, hedabideek diotenez, ikaragarri aberatsa da. Hilabeteotan «iraultza nola egin pentsatzen eta hausnartzen» aritu dela dio. Egungo «diktadura» «demokrazia parlamentario» bihurtu nahi du eta horretarako anbizio handiko programa dute esku artean: «Jendeak botoa Al-Sisi erortzean zer gertatuko den jakinda eman behar du».

Egungo oposizioarekin hitz egin dute, baita Mohamed Mursi presidente islamistaren jarraitzaileekin ere, Anaia musulmanekin alegia. Al-Sisik berak zuzendu zuen Mursi presidente kargutik kendu zuen

Mike Pompeo AEBetako Estatu idazkaria (ezkerrean) Abdel Fatah al-Sisirekin, Berlinen joan den astean. Odd ANDERSEN | AFP

estatu kolpea. Gero kartzelan sartu zuten eta oso baldintza negargarrietan, gainera. Iazko ekainean hil zen presidente ohia. Nazio Batuen Erakunde-ko adituek azaroan esan zuten Mursiren heriotza «erailketa bidegabe» bat izan zela. Bizibaldintzak bereziki txarrak izan ziren Torako espetxean eduki zuten bost urteetan. Diabetesa eta hipertentsioa zituen presoak, era egokian tratatu ezean hilgarriak izaten diren gaixotasunak. Agintariei behin baino gehiagotan jaki-

narazi zieten presidente ohia gaizki zegoela, baina ez zuen tratamendurik jaso.

Mursi presidente islamistarekin zer gertatu den ikusita,

Agnes Callamard NBEko kontalariak zuzendutako aditu taldeak gomendatu zuen Egipton 2012az geroztik hil diren presoengatik inguruko ikerketa inpartzialak egiteko.


#### AGINTEAK NAHI DUEN ATENTATUA

Egiptoko Gobernu munduko beste exekutibo askok egiten duten moduan erantzuten ari da. Gaur manifestari gehiegi bildu ez daitezela, adierazi du islamistek «atentatuak» egiteko asmoa zutela eta segurtasun indarrek arriskua saihestea lortu dutela. Hasm izeneko talde armatua litzateke erasoak egin behar zituztena. Turkian ihes eginda bizi diren islamistak liriateke aginduak eman dituzten politikariak.

“Al Ahram” egunkariak Barne Ministerioaren agiriaren berri eman du. Bertan nabarmentzen da ustezko plan horren helburua Egiptoko segurtasuna hankaz gora botatzea, kaosa eragitea eta ekonomia kaltetzea zela.

**«Etengabeko salbuespen-egoera» bizi du Egiptok azken urteotan, orain hilabete batzuk giza eskubideen aldeko elkarte eta ekintzaileek salatu zuten bezala**

**«Iraultzaren atarian gaude. Trantsizio programa sinatuta dago, oposizioa bat eginda, eta azken puntua baino ez zaigu falta: Egiptoko herriak berriro kaleak hartzea»**







**Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar**  
Arkitektoa

## Palmondoa

arkitektura / zientzia / london calling

**V**arsovia, arratsaldeko laurak eta ilun, oso ilun jada. Hotz egiten du baina ez horrenbeste, lehorra da giroa eta ondorioz eramangarriagoa (markagailua: **Varsovia 1, Donostia 0**). Charles de Gaulle-ren estatuak ez du zalantzarako leku handirik uzten: Rondo de Gaulle'a bidegurutzean gaude, polonieraz deklinatzean bitxikeria den apostrofo eta guzti. Baina inork gutxi egiten dio kasu politikari eta militar frantsesaren estatuari, parean duenak itzal egiten diolako zeharo: palmondo bat, 15 metroko palmondo erraldoi bat bidegurutzearen erdian.

Egiari zor, palmondo-palmondoa ere ez da. Enbor-azal naturalez estalitako altzairuzko egitura bat da, hostoak polietilenoazkoak dira eta, hala ere, Gernikako arbolak beretzat nahi lukeen duintasunez nagusitzen zaie hiriko puntu neuralgikoan dituen lehiakideei. Instalazioa Joanna Rajkowska artistaren lana da eta gabo-

netako opari moduan iritsi zen 2002ko abenduan; hasiera batean urtebeterako baina zutik dirau ordutik.

**Badu zerbait, palmondo horrek, herriarrek bere egin zutena. Exotikoa eta familiarra da aldi berean, probokatzalea eta freskoa.** Ohikoa da lagunekin "palmondoan" egitea hitzordua, edo tranbiatik jaitea "palmondoaren" geltokian; protesta, manifestazio eta ekitaldien lekuko ere izan ohi da. 2019ko ekainean, plastikozko hostoak ihartutako hostoz ordezkatu zituzten bi egunetarako: gezurrezko palmondo baten fikziozko heriotza, kutsaduraren eta aldaketa klimatikoaren kontrako ekintza gisa. Hain da pop, hain dago ongi txertatua artelana herri-iruditerian, ezen hiriko ikur bilakatu baita ezpata eta ezkutudun sirenarekin batera. Iman formatuan eros daiteke eta etxeko hozkailuan ipini.

Artelan orok izan ohi du bere azalpena, maiz gailentzen den arren «norberak eman diezaiola nahi duen

interpretazioa» azalpen axolagabea. Palmondoak ere izan badu berea: Rajkowskak Israelera egindako bidaia batek inspiratuta, II. Mundu Gerraren aurreko Varsoviako judu komunitate handiak utzitako hutsunea betetzeko saiakera da palmondoa. Hiriaren arima konplexuaz, historiaren eta lekuaren garrantziaz jabetzeko modu bat, lehen begi-kolpean lekuz kanpo dirudien objektu exotiko baten bidez.

**Izan ere, geopolitikan bezala artean ere, kokapena funtsezkoa da.**

Bost axola de Gaullek. Bidegurutze bat bi bidek elkar zeharkatzen duten tokia da, eta kasu honetan hiriko bi arteria nagusi dira: Nowy Świat eta Aleje Jerozolimskie. Alegia, Mundu Berria eta Jerusalem Hiribidea. Indartsua da batzuetan kale izendegia: palmondo bat mundu berriak eta Jerusalemek bat egiten duten tokian. Pozdrowienia z Alej Jerozolimskich (Eskuminak Jerusalem hiribidetik), Joanna Rajkowska, 2002. •

3 BEGIRADA:



MANIAK713



{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

# Herri ezberdina bagara, apustu ezberdina behar da

**B**ost egun barru greba orokorra deitua dago Euskal Herrian. Irakurri dudanez, duintasuna eskatzen da: lan, pentsio eta bizitzen duintasuna. Berria da planteamendua, ezohikoa. Aitortu behar dut: «duintasuna» politikaren edo protestaren erroan jartzen denean, normalean ez da gauza onik ateratzen. Ez dira duintasun neurgailuak ezagutzen, ez dago duintasunaren neurri unibertsalik, baina tira, nire arazoa izango da. Agian politika moderno eta fluidoek bandera horiek (duin, zintzo...) astindu behar dituzte. Klase sozialetan oinarritutako lubaki gerren garaia joanda egongo da, betiko agian. Aliantza, ideia eta sinesgarritasun publikoan metaketa berriak behar dira, bai, eta horri erantzutera etorriko da greba, agian. Baina bat egingo dut deialdiarekin, duintasunagatik baino gehiago, beste arrazoi batzuegatik.

Greba orokorrak, niretzat, kontra egiteko bezainbeste proposamenak egiteko izan behar du. Euskal gizarteari egokitutako eta hura zerbitzatuko duen ekonomia baten alde, eta ez ekonomiaren mendeko den euskal gizartearen alde. Herri ezberdina bagara, apustu ezberdina behar dugu, orain arteko politikekin ezin delako emaitza ezberdinik espero. Eztabaida ekonomikoa ez delako ñabardura txikien auzi batera mugatzen, ekonomia berri bat Euskal Herriarentzat ez delako, inondik inora, fantasia idealista hutsa.

Kontrarioak, normala denez, kontrako giroa sortzen ari dira, beti, indarrean dagoena egin daitekeen politika errealista bakarra dela erantsiz; esango dute dagoena edo kaosa, beste alternatibarik ez dagoela, pankarta atzean dabilzanek ez daukatela maila ekonomiaz hitz egiteko, eta are gutxiago erabakitzeko, eta abar.

Azken hamarkadetan, oro har, ezkerak ekonomiari forma berri bat eman nahi izan dionean zergen bitartez –irabazietan zentratuz, botere ekonomikoaren kon-

tzentrazioaren beste forma batzuetan baino gehiago– eta nazionalizazioen bitartez –askotan sektore pribatuko elite baten kudeaketa instituzioek hautatutako beste batengatik aldatuz– saiatu da. Mugatuak, petatxatuak diren interbentzioekin. Behar eta egin beharrekoak, baina, sistemikoagoak, iraunkoragoak diren aldaketekin etorri behar du nahitaez.

Berrikuntza ezinbestekoa da. Modernizazioa. Ekonomia berri bat behar da, justuagoa, barneratzaileagoa, gizartearekiko eta planetarekiko hain suntsitzaileria izango ez dena. Ekonomia berria bezala, gure herriaren oinarri nazional eta komunitarioen inguruan eraikitako gobernantza berria behar da.

Nola gertatuko da eraldaketa hori? Iraultzaren bitartez? Greba orokor mugagabearekin? Zalantzakoa da. Protesta beharko da, diskurtso alternatiboa, inda-

Protesta, diskurtso alternatiboa, egungo eredu ekonomikoaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duen praxia beharko dira, Baina hori, asko izanda ere, ez da aski izango

rrean dagoen eredu ekonomikoaren eraginkortasuna zalantzan jartzen duen praxia, bai. Eta Euskal Herrian horretarako badugu abiapuntu aski interesgarria, urtarrilaren 30ean berriz ere, beste behin, ikusiko denez. Eta gainera, badugu enpresa esperientzia eta lan kultura oparoa. Aski agian ez, baina asko da hori.

Euskal eredu sozial, produktibo, kultural aurreratu behar dugu. Euskal jendetik eta euskal jendearentzat. Munduko esperientzia aurreratuenekin konektatua. Gauden lekutik merezi dugun lekura abiatu ahal izateko. Ñabarduretan kateatzeke, alternatiboa den benetako ekonomia eta politika baten inguruan herri hau berriz ardazteko. •



# «PARETEK OIHU EGITEN DUTE»

Amagoia Mujika Telleria

Euskal Herrian bizi den katalana da eta Leitzako Atekabeltzan marraztu zuen murala munduko ehun onenen zerrendan sartu da. Lianek Australian jaso zuen berria, mural bat egitera joana zelako. Eta lauzpabost egun beranduago jakin zuen gainera, suteek harrapatuta egon zelako. Orain Kanarietatik kaso egin dio GAUR8ri, munduan barna ibiltzen baita hutsik dauden paretei oihuak marrazten.

**M**unduko ehun mural onenetako bat Leitzan dago, Atekabeltza etxean. Urtea hastearekin bat argitaratu zuen Streetart360 webguneak urtero osatzen duen zerrenda sonatua eta hortxe, 46. postuan, Muraless Lianek egindako lana. Berak, Lianek, lauzpabost egun beranduago jakin zuen bere balentriaren berri, Australian suteek inguratuta hasi baitzuen urtea.

«Une honetan edozein tokitatik deitzen didate bertara mural bat margotzera joateko; Australia, AEBak, Europako toki ugari... oraindik ez didate Hego Amerikatik deitu, baina hara lanera joateko irrikan nago». Hartara, urte zaharra bukatu eta berria hasi Melbourne inguruan egin du. «Melbournen bizi den lagun oso on bat daukat. Bere etxean geratu nintzen egun horietan eta Gabonak eta Urteberria pasatzeko Sydney hegoaldera joan ginen, opor egun batzuk pasatzeko asmoz. Baina suteek harrapatu gintuzten eta lau egun eman genituen etxe batean inkomunikatuta; ez elektrizitaterik, ez telefonorik... bizilagunekin partekatzen genuen piladun



irradi bat baino ez genuen. Ordu erdiko txandak egiten genituen, errepidearen egoeraren berri jakin eta handik atera ahal izateko. Muturreko egoera izan zen eta benetako beldurra pasatu genuen. Azkenean, handik ebakuatu gintuzten eta autoan abiatu ginen, bi haur txiki hartuta, baina errepidean ez aurrera ez atzera eman genituen zortzi ordu. Eta, gu bezala, ehunka auto. Errepidearen bi aldeetara sua zegoen. Ikaragarria. Baina han ikusi nuen gizakiaren alderdirik onena. Dena galdu zuten herritarrek errepide bazterretan ura eta jatekoa uzten zuten ebakuatzen ari ziren pertsonen laguntzeko. Sekulako keinua iruditu zitzaidan».

Muturreko egoera horretatik atera eta Melbournera iritsi zen urtarrilaren 4 inguruan. «Sare sozialak begiratzen hasi eta jakin nuen Leitzako murala

Goiko argazkian, Lianek bere burua aurkezteko erabiltzen duen irudia. Garrantzi handia ematen dio anonimotasunari. Alboko orrialdean, goitik behera, Bilbon, Deban eta Londresen egindako lanak.

GAUR8 - MURALES LIAN

ehun onenen zerrendan sartu zutela. Horrela enteratu nintzen, egun batzuk beranduago. Kaleko artista batentzat sekulako errekonozimendua da zerrenda horretan egotea. Gainera, nire muraletan maiteenetakoa dut Leitzako hori».

## MARRAZTEA, IHES EGITEKO BIDEA

Lian Ameriketako Estatu Batuetan jaioa da, baina nerabe zela handik alde egiteko beharra sentitu eta Kataluniara iritsi zen. «Nire haurtzaroa ez zen erraza izan. Desegituratutako familia batean sortu nintzen, urtero aldatzen genuen bizitokia. Inoiz ez genuen eman urte bat baino gehiago herri berean eta haurtzaro oso mugitua izan nuen; orain amarekin, orain aitarekin, harre- ra etxeetan tarteka... Ez nintzen sus- traitua sentitzen eta ez zitzaidan kosta- tu handik alde egin eta Kataluniara etortzea», hasi da kontatzen.



Haurra zela, irakasle batek 'aingeru guardakoarena' egin zuen berarekin; «zuzenean, bizitza salbatu zidan». Eten-gabe marrazten omen zuen, zigortuta bere gelan ezin atera zegoenean, klasean zegoenean... «niretzat marraztea ihes egiteko modu bat zen». Irakasle hori horrekin konturatu eta bere neurriko plan bat osatu zion; eskolatik lehenago atera eta paretetan enkarguz muralak margotuz sos batzuk ateratzeko aukera. Hama sei bat urte zituen ordurako. Hartara, ihes egiteko modua ez ezik, marraztea bizitzeko modua ere izan zitekeela konturatu zen. «Nik aurretik ez nuen pentsatu ere egin marraztea lan bat izan zitekeenik. Nolabait, irakasle hark ireki zizkidan begiak, berak eman zidan ideia».

Bere lehenbiziko murala Bostonen marraztu zuen, zaborretatik ateratako kontratxapatutako bi egur zatitan. «Haurra nintzela diru eskasia zen gure etxean eta gurasoekin nituen harremanak ezkorrek ziren normalean. Nerabe baten larritasuna erakusten zuen nire lehen lan hark. Zorionez, dagoeneko ez da existitzen».

Neurri batean beharrak bultzatu zuen paretak marraztera; oihu egiteko beharrak eta marrazteko tokien beharrak. «Arte ederretako materialak eta mihiseak ez ziren sekula nire eskura egon. Aldiz, 90eko hamarkada bukarako Chicago pareta zuriz beteta zegoen. Ordurako jabetza pribatuaren kontrako mespretxua sentitzen hasia nintzen eta zurian zeuden mihise amaigabeak topatu nituen inguruan».

#### BOR-BOR ZEGOEN BARTZELONARA IRITSI ZEN

Irakasle hark piztutako txispak benetako indarra hartu zuen 18 urte zituela Bartzelonara iritsi zenean. «Kaleko artearen gorakada betean iritsi nintzen Bartzelonara. Bazter guztietan ikusten nuen kaleko artea eta asko hunkitu ninduen horrek. Marrazten zuen jendearengana hurbildu nintzen eta hor hasi zen nire benetako bidea. Mugimendu sozialak puri-purian zeuden eta erabat sartu nintzen horietan. Orduan ulertu nuen kalean margotzea herriarekin komunikatzeko modu bat



zela. Sekulakoa izan zen. Bartzelonan topatu nuen benetako inspirazioa».

Lianek garbi dauka, «paretek oihu egiten dute». Herriaren minak, ezinak, eskaerak oihukatzen dituzte.

«Kalekoa arte iheskorra da eta hori polita iruditzen zait. Denborarekin eta eguraldiarekin aldatu egiten da eta hori interesgarria da. Artea museoetan gordeta egon da duela gutxi arte, dirudunen eta boteretsuen esku. Kaleko artea herriaren esku ere badago, guztiontzat da eta hori ona da».

*Street artist* eta emakumea. Bi tasun horien gainean eraiki da Lian. «Ezohikoak diren edota aitortuak izan ez diren emakumeak ikusarazteko espazioak sortu nahi ditut». Inspirazioa inguruan topatzen du, «bizitzan bertan».


#### EUSKAL HERRIAN BIZI DEN KATALANA

Bartzelonan bi hamarkada eman ditu eta azken hiru urteetan Euskal Herrian bizi da, Atxondon. «Katalunian trebatu eta hezi naiz sortzaile gisa eta katalana naizela sentitzen dut. Nire familiazat hartzen dudana Katalunian topatu dut eta bertakoa sentitzen naiz. Identitatea eraikuntza sozial bat dela uste dut baina, zalantzarik gabe, norbera sentitzen den tokikoa da, norberak sentitzen duen identitatea dauka. Hori ez dut sekula zalantzan jartzen. Eta ni katalana naiz».

Orain, esan bezala, Euskal Herrian bizi den katalana dela dio. Euskara ikasten ari da eta nahiko maila ona lortu du dagoeneko. «Oso pozik nago Euskal Herrian, izugarri gustura. Askotan esaten da euskaldunak itxiak direla eta nik justu kontrakoa topatu dut; besoak zabalik hartu naute, etxean bezala sentiarazi naute. Euskal kulturarekin maiteminduta nago eta izugarritzko herria iruditzen zait; borrokalaria, solidarioa... oso gustura nago hemen».

Katalunia eta Euskal Herria lotuta daude. «Azken hogeitaz askotan egon naiz Euskal Herrian, katalanak eta euskaldunak oso konektatuta gaudelako. Joan-etorri horietan ezagututako jendeari esker orain Euskal Herrian bizi naiz. Euskara ikasten hasi nintzen






Lerro hauen ezker aldean, goitik behera, Bilbon, Estatu frantsesean eta Izarran paratutako lanak. Lerro hauen gainean, Madrilgo Vallecás auzoan egindakoa. Alboko orrialdean, AEBetako Michiganen egindako murala eta Arteagan sortutakoa.  
MURALES LIAN

lehen egunetik eta saiatzen naiz nire egunerokoa euskaraz egiten. Egia esan, Atxondon erraza da euskaraz bizitzea».

Atxondon bizi da, baina joan-etorrian ibiltzen da beti. Bere lanak munduan gora eta behera ibiltzeko aukera ematen dio eta pribilegiatua sentitzen da horregatik. Australian zegoela jakin zuen Leitzako bere murala munduko ehun onenen zerrendan sartu zela eta elkarrizketa hau Kanarietan dagoela eskaini digu. «Inauterietako gala baterako mural bat prestatzen ari naiz hemen». 2019an Ingalaterran, AEBetan, Alemanian, Italian, Madrilan eta Bartzelonan egon da lanean. Eta hasi berria den urtean, Australian eta Kanarietan.

Mugimendu sozialen inguruan aritzen da Lian; hor kokatzen du muralgintza ulertzeko bere modua. «Saiatzen





naiz erakundeen inguruko mugimendu sozialetan ez aritzen. Herritik sortutako mugimendu sozialak maite ditut». Borroka eta bizimodua uztartzen ditu bere lanetan, batzuk enkarguz eta ordainduta egiten ditu eta beste batzuk, militantziaz.

Leitzan ez ezik, Euskal Herriko txoko askotan topa daiteke Muralen Lianen sinadura; Bilbon, Sopelan, Santutxun, Santurtzin, Getxon, Durangon, Lemoan, Izarran, Deban, Ibarran, Arteagan, Gernikan, Eibarren, Abadiñon, Donezteben eta Atxondon.

**«Street artist» eta emakumea da Lian eta mugimendu sozialen inguruan aritzea maite du. Horiek dira bere sorkuntzaren zutabe nagusiak. Mundu osoan barna topa daitezke berak egindako muralak**

**AEBetan jaio bazen ere, katalana sentitzen da. «Katalunian trebatu eta hezi naiz sortzaile gisa eta katalana naizela sentitzen dut. Nire familiaz hartzen dudana bertan topatu dut eta bertakoa sentitzen naiz». Orain Atxondon bizi da**

## HERRITARRAK TXIRIKODARTZEN DITUEN ILEKORDA SENDOA

«2008an Leitzako gaztetxea pintatzen aritu nintzen. Urte batzuk beranduago, eraikinean konponketa batzuk egin behar izan zituzten eta murala kendu beharra izan zuten. Bartzelonatik Atxondora bizitzera etorri nintzen duela hiru urte eta iritsi eta berehala mural bat egiten hasi nintzen bertan. Leitzar bat bizikletan gerturatu zen bertara, garai batean Leitzako gaztetxean murala egin zuen katalana Atxondon zegoela entzun zuelako. Ni ote nintzen egiaztatu nahian gerturatu zen eta mural berriaren ideia proposatu zidan», hasi da kontatzen Lian Atekabeltzako muralaren hasiera.

Atekabeltza Guardia Zibilaren kuartela izan zen ehun urtez eta horiek utzi ondoren, 2005. urtean, okupatu zuen herriko Gazte Asanbladak. Auzolanean goitik behera konpondu eta moldatu zuten eraikina eta hasieratik konturatu ziren espazio handia zela Atekabeltzekoa. Hortik sortu zen proiektua herriko beste eragileei zabaltzeko ideia eta Atekabeltz Herrigunea sortzeko proposamena. Gaur egun, Gazte Asanbladaz gain, hainbat gazte elkartek, mugimendu feministak, kultur taldeek, komertzio txikien aldeko taldeek eta bestelakoek beren tokia daukate Atekabeltzen.

«Muralaren enkargua egin zidatenean zenbait hitz gako pasatu zizkidaten, espazio horren nortasuna azaltzen dutenak: auzolana, autogestioa, elkartasuna, asanblearismoa, feminismoa, euskara, askatasuna, alternatiboa, dinamikoa, kolektiboa... Ez da erraza kontzeptu horiek guztiak biltzen dituen murala osatzea. Azkenean, ilea txirikordatzen ari den adineko emakume baten irudia osatu nuen. Kolore ugari dauzka ilean. Modu askotara begiratu daiteke murala; zaharra eta berria elkartzen dituen tokia, tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituen... Baina, harago joanda, emakume hori herria izan daiteke eta txirikordatzen duen koloretako ilekorda elkarrekin zerbait egiteko elkartu diren eragile desberdinak izan daitezke. Zerbait ederra eta sendoa egiteko elkartu direnak irudikatzen ditu koloretako ilekordak. Emakumeak, gainera, eraztun bat dauka eta bertan 'alde hemendik' ikurra dago, kuartela husteko herriak egin duen borrokaren seinale», azaldu du muralaren egileak. Lianentzat oso maitea eta berezia da. «Modelo lana egin zuen emakumea nire amatzat hartzen dut. Nire ama biologikoa hilda dago eta muralan agertzen den emakumea niretzat nire ama izan da. Emakume borrokalaria da eta gauza asko erakutsi dizkit bizitzaz».



Leitzako Atekabeltza etxeko murala, munduko ehun onenen artean kokatu dutena. Jon URBE | FOKU





## IKUSMIRA

# POLITIKOA DA, LABORAL ETA SOZIALA BAITA

Asteon Olaberrian eta Sunbillan izandako lan ez-beharrak ez dira aurtengo zazpigarrena eta zortzigarrena izan, zazpigarren eta zortzigarren hildakoak utzi dituztenak baizik. Hiru aste pasatxoan. Batzuek -tartean ni- hilaren 30ean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitu duen greba orokorarekin bat egiteko zortzi motibo potolo gehiago direla uste dute. "Lana, bizitza eta pensio duinak" goiburupeko grebaren alde agertu diren sindikatuei haren izaera politikoa




jon URBE - Iñigo URIZ | FOKU

egotzi diete EAJ, Elkarrekin Podemos, PSE eta PP alderdi politikoei. Eta ez dute arrazoirik falta, grebaren izaera laboral eta soziala delako. Jakina da alderdi horiek grebaren izaera hori lausotzeko esan dutela hori, baina arrazoi dute eta, horrela, ageriago utzi dituzte grebarekin bat egiteko arrazoiak. Madrilen, Gasteizen zein Iruñean, administrazio batean zein bestean, nork egiten ditu lan arriskuak prebenitzeko legeak? Nork prekaritatea areagotzen duten lan erreformak? Nork kudeatzen du aberatsenak mesedetzen dituen fiskalitatea...? Xabier Izaga Gonzalez



# LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia BALLESTEROS

iRRITZIA: {



## > Kirola eta aldarrikapena Etxera Trail-en



NAIZ+

IV. Etxera Trail euskal presoen aldeko martxa Gernika-Lumo pasealekuan egingo da bihar. Euskal preso, iheslari eta erre-fuxiatu politikoen auzian ahalik eta herritar gehien inplikatzeari, konprometitzea eta



aktibo bilakatzea da aurtengo helburua. 700 korrikalari inguruk parte hartuko dute.

Aurten herritarren parte-hartzea handiena izan eta inor kanpoan gera ez dadin, adin guztientzako ibilbideak anto-

latu dituzte. Horrela, euskal preso eta iheslariak etxera ekartzeko elkartzun mendilasterketak hiru modalitate izango ditu: martxa txikia, 10:45ean hasi eta sei kilometrokoa izango dena; martxa luzea, 9:00etan hasita, 16 kilometrokoa, eta lasterketa, 10:30ean hasi eta 16 kilometrokoa izango dena. Hasiara Gernikako Merkurio iturrian izango da.

13:00etan ekitaldi nagusia izango da eta antolatzaileek sariak banatuko dituzte. Ondoren, presoen aldeko brindisa egingo dute. Gainera, goiza alaitzeko trikitilariak eta txistulariak izango dira Gernika-Lumoko kaleetan.

Aurtengo berritasuna Oihana Bartrak sortutako abestia da, eta Gorka (Leihotikan), Zaltoa (Kokein), Josune (Huntza) eta Osamaren (The Riff Trucers) laguntza izan du. Musak (Sarkor) eman dio bateria soinua eta Urrik, aldiz, gitarra. Bideo klip bat ere estreinatu dute.

Martxa hau erreferentzia-puntu bihurtzen ari da.



## > Ken Zazpiren «Ilargia», OTren galan

Anne Lukin eta Maialen Gurmindo iruindarrak, hurrenez hurren 18 y 25 urtekoak, Operacion Triunfo TVEko lehiaketa ezagunean parte hartzen ari dira aurten. Lehiaketa horren lehenbiziko edizioa 2001. urtean izan zen.

Astero zenbait parte hartzaileetatik bat lehiaketatik kanpo gelditzen da. Igandean, bihar



alegia, lehiakideek gala bat egingo dute, eta bi nafar gazteek Ken Zazpi taldearen «Ilargia» abestia kantatuko dute batera. Telebista-programa horretan euskarazko abesti bat entzuten den lehenbiziko aldia izango da.

Egin duten entseguren bideoak 73.000 bisitatik gora izan du Youtuben.





**GAUR8** ireki gure leihoa





**Gorka Zozaia - @zotz\_**  
Kimikaria

## Bisurte berri on!

arkitektura / zientzia / london calling

# 3 BEGIRADA:

**D**agoeneko urtea hasi zenetik ia ilargi ziklo bat bete denean, zin dagit azkenengoz faltan botatzen dudala urtarrilaren lehen egunetan ohikoa den ospakizuna. Aurtengoan bereziki plasta izan nahiz beharbada, gaur arte aurreko urtetik ikusi ez dudana jendea «bisurte berri on!» esaten... barka nazazue horregatik, baina lerrootan bezala, bisurteaz hitz egiteko aitzakia bat besterik ez da izan. Alegia, zergatik duen aurtengoak egun bat gehiago, egutegian otsailaren 29arekin azaltzen zaiguna.

Azalpen gehiegirik gabe ikusten ahal da bisurte edo urte bisiestoaren arrazoia; Lurra Eguzkiaren inguruan egiten duen translazioa ez dela zehazki egokitzen Lurra bere baitan duen errotazioarekin, eta nolabait konpondu behar dela errore hori. Egiptoarrek k. a. 238. urtean eguzki urtean oinarritzen den egutegi zaharrena osatu zutenean –aipatzekoa den zehaztasun txundigarri–, 365,25 eguneko iraupena kalkulatu zioten Lurraren translazioari, lau urtean behin egun bat gehitzearen logikaren antzintasunaren isla, gerora erromatarrek bere egingo zuten erreferentzia. Neurriak eta kalkulak zehazten joan diren heinean, dezimalak gehituz joan zaizkio zenbaki horri eta egun urte tropikoak 365 egun 5 ordu 48 minutu eta 45,25 segundo (365,242190402 egun) irauten dituela diogu.

**Tartetxo hori zuzentzeko eta, bide batez, egutegia udaberriko ekinokzioari doitzeko, ezarri zen egutegi gregorianoa, ordura arteko juliotarreko 1582ko urriaren 4an, osteguneguz, hurrengo eguna, ostirala, gregoriano 1582ko urriaren 15 bilakatzeko. Julio Zesarren Erromatik indarrean zen egutegiak, 10 eguneko atzerapena**

zuen pilatua ordurako, urtea =  $365 + 1/4 = 365,25$  eguneko zela jo izan zuelako. [Esan dezadan, parentesi gisa, une honetan eraldatu zela aurrez heredaturiko *Martius, Aprilis, Maius, Iunius, Quinctilis, Sextilis, September, October, Nouember, December* izendegia, lehen laurak jainkoei eskainiak izanik, Julio Zesarrek bosgarrena bere egin zuenean. Beste horrenbeste egingo zuen Augusto Oktaviok seigarrenarekin eta gerora *Ianuarius* eta *Februarius* gehituko zitzaizkion.] Gregorianoak ehunen multiploak ez ditu bisurte egiten, 400en multiploa ez bada. Honela, urtea =  $365 + 1/4 - 1/100 + 1/400 = 365,2425$  eguneko da, 3000 urtean egun bakarreko errorea pilatuz. Desfa-

se hau guztiz arbuiagarria da, denbora tarte hauetan zikloen denborak aldatu egiten baitira.

**Honetaz guztiaz hizketan ari ginela, anaiak galdera interesgarri bat bota zidan atoan, pasa den urtearen hondarrean; zenbat bira oso emango dizkio Lurra bere buruari 2020an?** Ezen eta Lurraren bira osoa ez baita zehazki egokitzen egun batekin, munduari 80 egunetan bira eman zion Phileas Foggek ondo dakienez... horratx bisurte honekin uzten dudana galdera pizgarria, gabonetako opari bat bezala, izan dadila eguzki buelta berri hau buruari ekinenez hasteko aitzakia! •



Zenbat bira oso emango dizkio Lurra bere buruari 2020an?

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

# «Mogambo»

**G**ure aitona Enrike zinemazale amorratua zen, bereziki gustuko zituen Clark Gableren pelikulak. Hollywoodeko aktoreen izenak idazten diren moduan ahoskatzen zituen belaunaldikoa zen aitona eta barrez bere ahoskera zuzentzen nuenean, are ozenago ahoskatzen zuen aktorearen abizena gaztelaniaz irakurriko litzatekeen moduan.

Gableren zale amorratua izanda, imajinatzen dut «Mogambo» pelikula ikusiko zuela aitonak. 1953. urtean estreinatua zen, gure ama jaio eta bi urtera. Imajinatu dezaket, era berean, nire aitonaren harridura Grace Kelly filmeko beste pertsonaia batekin intzestu harremanak izaten ari zela ikustean. Zentsurak garai hartan modu oso zorrotzean funtzionatzen zuen eta pelikuletako bikoizleek beraiek zentsuraren guraizeak saihesteko neurriak hartzen zituzten. Horregatik, Grace Kellyren pertsonaiak Clark Gablerekin adulterioa egin ez zezan, Graceren senarra bere anaia bihurtu zuten. Ez dut imajinatu ere egin nahi zer pentsatuko zuten garai hartako ikusleek. Baina Estatu frankistak oso argi zuen zein zen bere helburua. Dagoeneko Pilar Primo de Riverak Falangeko Sekzio Femeninoa sortu zuenean argi eta garbi esan zuen; Errepublikak deuseztatutako balio tradizionalak berreskuratu behar zituen Francoren erregimenak eta horretarako funtsezkoa zen familia erdigunean jartzea. Horretarako euren eskuetan zituzten tresna eta bide guztiak erabili zituzten; eskola, eliza eta, zergatik ez, zinema.

Gauza zoroagoak ikusten ditugu gaur. Esate baterako, gaur egun Espainiako ultraeskuinak (nahiz eta espainiar eskuinaz soilik hitz egin beharko genukeen, espainiar eskuin guztiak ultraeskuinaren arropa aspaldi jantzi du eta) haurrak eskolan doktrinatzeari leporatzen dio Estatuari, eta gurasoek beren seme-alabak egoki deritzoten balioetan hezteko duten es-

kubideaz hitz egiten du. Balio horiek, noski, balio tradizionalak dira; familia heteronormatiboa erdigunean duen hori. Bagenekien frankismoaren oinordeko zuzenak zirela, eta dagoeneko ez dira saiatu ere egiten hori disimulatzen.

Garbi dago, era berean, doktrinatzeari askatasunean heztearekin nahasten dutela, askatasuna hitza bereganatzen saiatzen diren arren. Skolaarekin ere egin zuten aurreko Nafarroako Gobernuari leporatuz hainbat balio inposizioaren bidez zabaltzen ari zela. Haur bati errealitatea zein den eta aukerak zeintzuk diren azaltzea ez zaidan arren inongo inposizioirik iruditzen, ez naiz giza eskubideak, tolerantzia eta askatasuna bezalako balioak eskola curriculumetan irakastearren kontra agertuko inolaz ere.

Zentsurak orain beste bide batzuk hartu ditu. Ez dabilta zentsoreak guraizeekin pelikulak moztan

Gauza zoroak ikusten ditugu; Espainiako ultraeskuinak haurrak eskolan doktrinatzeari leporatzen dio Estatuari. Bagenekien frankismoaren oinordeko zuzenak zirela eta dagoeneko ez dute disimulatzen

zuzenean, batzuetan sotilagoa da kontua. Horren adibide da Mayak Iruñerrian erabili duen ingeniari-tza politikoa (hitza Joseba Asironi lapurtu diot) Euskalerrira irratitari –Iruñean dugun euskal komunikabide bakarrari– publizitate instituzionalagatik jasotzen zuen dirulaguntza kentzeko.

Beste batzuetan, berriz, modu zakarragoak erabiltzen dituzte; adibidez Iruñean emanen zen hitzaldi baten izenburuarekin urduri jartzen direnean «orgasmo» hitza agertzen delako. Ez dakit aitona zer esanen lukeen honi guztiari buruz, baina argi dago «Mogambo»-n bezala orain batzuek intzestua, batzuetan baita zoofilia ere, ikusten dutela nonahi. •



**E**rrenteriarra da sortzez, eta Hernanin bizi da orain. Era guztietako literatura lehiaketetan ikusi ahal da bere izena eta askotan, gainera, sarituen artean. Azkena, Oihenart aforismo lehiaketa eta horrekin badira 80 lortu dituen sariak. Lanbidez galdaragilea da eta ilunzertzero esertzen da idaztera, for-

matu motzean. Bere errutinarren parte da munduari ikusten dizkion ertzak hitzetan kabiaraztea; bertsopaperetan, ipuin motzetan, aforismoetan...

Iñigo Legorbururentzat idaztea bere buruarekin egoteko modua da. Bere burua entzun eta entzun dituenak hitzetan jartzen omen ditu. Eta lehiaketa da idazteko behar duen akuilua.

**IX. Oihenart Aforismo Lehiaketa irabazi duzu eta zure marka borobildu: 80 lehiaketa irabazi dituzu azken hamarkadan.**

Bai, 80. saria izan da hori. Bertsopaperetan, aforismoetan, ipuinetan, mikro kontakizunetan... aritzen naiz. Idaztea den edozer gauzara animatzen naiz. Baina formatu motza izan behar du eta lehiaketa kutsua. Ez naiz batere diziplina-

*«Galdaragilea naiz. Idaztea zaletasun bat da, gauero egiten dudana, intentsitate motzean. Egunero ordu erdi edo berrogei minutu ematen ditut idazten eta kito. Saiatzen naiz egunero ariketa hori egiten»*

tua eta lana bukatzeko epemuga bat behar dut. Bestela, seguruena, ez nuke egingo.

**Alegia, ez duzu lehiatzeko sortzen, baina lehiak sortzen laguntzen dizu.**

Bai, horretatik zerbait badagoea esango nuke. Finean, nire buruarekin daukadan borroka bat da. Ez banu entregatzeko eguna izango, egiten dudanaren erdia ere ez nuke egingo.





# «Niretzat idaztea mundua interpretatzeko aukera da: zure burua entzun eta entzuten duzuna paperean jarri»

Bultzada hori behar dut; lana entregatzeko egun zehatz bat.

## Lanbidea beste alor batean duzu.

Bai, galdaragilea naiz. Idaztea zaletasun bat da, gauero egiten dudana, intentsitate motzean. Ni ez naiz bi ordu idazten egotekoa. Egunero ordu erdi edo berrogei minutu ematen ditut idazten eta kito. Saiatzen naiz egunero ariketa hori egiten, nahiz eta ez dudan beti lortzen. Baina nire errutinaren parte da egunero 30-40 minutu idazten ematea.

## Zuretzat zer da idaztea?

Nire buruarekin egoteko momentu bat da. Azkenean, eguneroko erritmoak eraman egiten gaitu. Gaueko momentu lasaiago horretan, nire buruarekin egoteko modua da idaztea. Horrez gain, niretzat idaztea da mundua ikusteko eta interpretatzeko daukazun aukera: zure burua entzun eta entzuten duzuna paperean jarri.

Egunean zehar entzuten ditudan albisteak, irakurtzen ditudanak –oso prentsa zalea eta gaurkotasanaren jarraitzailea naiz–, buruan ibili ditudanak patxadaz hausnartzeko modua da idaztea.

## Hain gustukoa izanda eta hain saritua izanda, nolatan da idaztea zaletasuna bakarrik?

Seguruen ez naizelako oso diziplinatua eta ez naizelako gauza luzeak egiteko gai. Saiatu izan naiz gauza luzeagoak idazten, baina sentsazioa daukat bidean galdu egiten naizela. Aurten, adibidez, egin dudana gauza luzeena hamabi orrialdeko lan bat izan da. Niretzako maratoni bat

izan da, luze egin zait. Beti formatu motzagoak egiten ditut, hor sentitzen naiz eroso, motzean.

## Nola hasi zinen lehiaketa bira horretan?

Kasualitatez. Lehen saria bertso-paperetan lortu nuen, Lazkao Txiki sariketan. Xenpelar bertso eskolan ibiltzen nintzen, lagunartean, eta bertso eskolako kontuak aipatuz bertso sorta bat aurkeztu nuen, umorezkoa. Bigarren saria lortu nuen, baina gauza zelebrea gertatu zen; lehen saria eta hirugarrena hutsik geratu ziren. Horrek zer pentsatu eman zidan eta sariketetan parte hartzeko bultzada. Piztu egin ninduen eta segidan etorri ziren ondorengoak. Sariketa hartan ez banindute saritu, ez dakit bide horretan jarraituko ote nukeen.

## Ohikoa da hori? Sariketetan sariak hutsik geratzea?

Tira, batzuetan gertatzen da. Euskaraz idazten dugunak ez gara asko. Hala ere, boladak izaten dira, badira arrakasta handia daukaten sariketak eta badira makalxeago dabilzanak. Baina nire irudipena da idaztea karga bihurtu zaigula, irakurtzea bera karga bihurtu den bezala.

## Zure etxeko egutegia sariketetan banatuta irudikatzen dut.

Bai, horrelako zerbait. Behin sariketa batean parte hartzen dudanean, apuntatu egiten dut datorren urterako.

Urtarrilean Mungiako bertso-paper lehiaketa bat entregatu dut eta Errenteriako Mariasun Landa sariketarako lana ere entregatu nahi dut. Barakaldoko maitasun gutunen lehiaketan ere parte har-

tu nahiko nuke, urtarrilean hori ere. Iaz Bergarakoa irabazi nuen eta aurten epaile nabill. Otsailean, uste dut, ez dudala entregatzeko lanik eta martxoan Iparragirre saria emango didate. Oraintxe esan didate bertso-paperetan saritua izan naizela. Eta horrela, gutxi gorabehera, urte guztia.

Sarien kontu hau bada Euskal Herria ezagutzeko modu bat, sariak jasotzeko aitzakian toki eta jende asko ezagutu ditudalako.

## Kasik bi lanbide paralelo dituzu; galdaragilea eta saritua.

Horrelako zerbait. Baina batek jaten ematen dit eta besteak ez. Sariketetatik ezin da bizimodua atera eta garrantzitsuena niretzat egindako lanaren errekonozimendua da. Eta, gainera, nire lana argitaratzen badute, are hobeto. Sariketa batzuetan saritutako lanak apalategietan edo artxiboetan ahaztuta gertatzen dira. Beste batzuetan, berriz, lan horiek argitaratu egiten dituzte. Horrek sekulako poza ematen dit.

## Epaimahaiaren beste aldean egoten ere badakizu, bertsolari txapelketetako epailea ere bazara.

Bai, horretan ere aritzen naiz. 2006-2007 inguruan hasi nintzen. Bertso eskolan ibilia naiz eta bertsozalea ere bai, baina ez bat-bateko bertsolaria. Nirea bertso-paperak dira. Bertsoa nola epaitzen zen ikustera gonbidatu ninduten, probatzera. Eta, beste asko bezala, behin probatuta hor geratu nintzen.

## Kanpotik begiratuta, bertso epailearenak lan zaila eta ez oso esker onekoa dirudi ba.

## IÑIGO LEGORBURU

### SORTZAILEA

Lehiaketak dira idaztera bultzatzen dutenak, egunero idazteko ariketa pizten diotenak. Dagoeneko 80 irabazi ditu, azkena, aforismoena. Lanbidez galdaragilea da, baina paraleloan darama bere zaletasun handiena: idaztea.

Amagoia Mujika Telleria

Zaila bada, bertsoa ezin dela-ko epaitu eta euskaldunak horretan tematzen garelako. Arte bat puntuatzea kasik ezinezkoa dela esango nuke edo, behintzat, oso zaila.

Bertsoa epaitzeko gauza objektiboak badaude, baina norbere gustuek ere pisu handia daukate. Teknikoki bertsolari-tza oso maila onean dago orain eta bertsolarien arteko alde teknikoak ez dira oso nabarmenak. Hortik aurrera, ñabardurek pisua hartzen dute.

Baina esker txarrekoa denik ez nuke esango. Bertsozaleak errespetu handiarekin tratatzen du bertso epailea, nahiz eta askotan ez dagoen ados epaiarekin. Baina Xalbadarren garaiko txistu haiek pentsaezinak dira gaur egun.

Bertsoak epaitzen, tentsioan, baina gozaten dela esango nuke. Askotan hurrengo egunean sekulako bizkarreko mina izaten dugu eta orduan konturatzen gara bezperako tentsioarekin.



## KONTZIENTZIAK ASTINTZEN DITUZTEN HITZAK

EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateak bederatzigarrenez antolatu du Oihenart aforismo lehiaketa. Iñigo Legorburuk bigarren irabazi du lehiaketa –2015. urtean ere gailendu zen–, ia ehun aforismoko sorta batekin.

Baina, zer da aforismo bat? «Interpretazio desberdinak ditu. Nik esango nuke pentsamenduarekin edo filosofiarekin lotura duen esaldi bat dela, ironian oinarritutako hitz joko bat. Zorrotza izaten da, motza eta batzuetan lezio bat dauka bere baitan. Batzuetan egia absolutua bilatzen du eta bere helburua arreta deitzea eta zirrara sortzea da. Nik esango nuke etorkizunera ekarritako atsotitzak direla, atsotitz berriak, modernoak. Greziarrek dagoeneko bazituzten esaldi magistralak. Hortik badutela esango nuke. Eta aforismoak zirtolariak izan daitezke eta ni bide horretatik noa. Hizkuntza probokatzeko,

xaxatzeko eta kontzientziak astintzeko erabiltzen du aforismoak».

Ez dago aforismoak bete beharreko araurik, baina motza izan behar du. «Aforismoaren helburua da irakurlearengana iristea. Batzuetan bitan irakurri behar da aforismo bat bere baitan daukan punta guztiak ikusteko. Hitz justuak behar ditu, idor eta eder, Maialen Lujanbioren hitzak ekarriz. Eta nire ustez aforismo on batek segundo pare bateko isilunea sortzen du. Irakurri, segundo batzuetan hausnartu, eta jaso. Bigarren bote hori gustatzen zait».

Zirtolariak eta bertsolariak ondo dakite aforismoen berri. «Bertso askoren bukaerak aforismo ederrak dira».

Oihenart lehiaketara aurkezteko aforismo bakarra edo sorta bat aurkez daiteke. Eta sorta horretako aleek ez dute zertan beren artean loturarik izan.

• *Pornoa, zientzia-frikzioa da.*

• *Polizien kotxeek argi asko dituzte... konpentsatzeko.*

• *Urteekin, ni izaten jarraitzen dut baina gero eta gutxiago.*

• *Euskal Herria: Gu zara baina ni ez naiz beti gu.*

• *Gurean, ez dago xenofobiarik... soilik, genozidio ekonomikoa.*

• *Baserritarrekin garaiak partekatzen ditugu baina denborak ez.*

• *Pentagramak, algoritmoak dira egungo musikan.*

• *Dikeen bidez defendatzen diren lurraldeak, lur ikaratuak dira.*



## Voxekeriak

Amagoia Mujika  
Telleria

**V**oxen voxekeriak. Gurasoen pinarekin bazterrak nahasten aritu dira lehenbizi. Hezkuntza publikoan haurrei masturba-tzen erakusten zaiela, homosexualitatea bultzatzen dela... gezurra gezurra- ren gainean, saldu nahi duten apokalipsia irudikatzeke. Ez daukate erreparorik horretarako muntaiak egiteko, hitzaldiak asmatzeko eta urrutiko irudiak gertukoak bailiran saltzeko. Alegia, film porno batetik irudi bat hartu eta bost urteko haurren ikasgela batean kokatzeko gai dira, lotsagabe eta aztoratu gabe. Okerrena da jende gehiegi da-

goela *fake news*ak mastekatu gabe oso- osorik irensten dituen. Eta sare sozia- lak apartekoak dira gezur bat mila aldiz errepikatu eta egiaz mozorrotzeko.

Horrekin aztoratuta genbiltzala, des- pistatuta, euskararen kontrako harro- puzkeria etorri da. Euskaraz ez dakite- nak baztertuta bizi omen dira euskararen herrian, beren hizkuntza eskubideak zapalduta. Alegia, komuni- tatean ura moztuko dutela ezin jakin- da, atarian oharrak euskara hutsean jartzen direlako. Ez dago eskubiderik. Beren hizkuntza eskubideak zapaltzea gutxi ez eta lasai dutxatzeko edota ba-

razkiak egosteko sekulako oztopoak sufritu behar, euskararen nagusitasu- nak eta agintekeriak zapalduta bizitze- ra kondenatuta daudelako.

Batzuetan, gutxi batzuetan, Voxekoa izateko desioa izaten dut. Irudikatzen duten jendarte desastre horretan hau- rren eta gaztetxoan sexu hezkuntzak sekulako garrantzia dauka eta oso-oso irekia da. Eta, gainera, euskara osasun- tsu, indartsu, nagusi eta gaztelera za- paltzeko moduan dago. Egiatan, ez da- kit Voxekoek zer botatzen dioten zopari, baina nik ere probatu nahiko nuke pixka bat. •

## Zaindaria lapur

Xabier Mikel  
Errekondo

**H**ilaren 16an “Le Point” aldizka- riaren bidez jakin dugu ETak Frantziako agintariei entregatu- tako armetatik ehundik go- ra lapurtu zituztela horien zaindari zi- ren polizia bik. Tartean pistola ugari, detonagailuak eta Kalaxnikov bat.

Ez omen ziren arma trafikorako, bil- dumarako baizik, armekiko pasioa iza- ki. Eta, noski, Frantziako agintaritzak aitzakia baleko eman eta bere polizia, nahiz ustelkeriaz jota, babestu egin du. Nago, baina, bilduma osatzeko nahikoa luketela mota bakoitzetik ale-

bana hartzea; aitzitik, ehundik gora ar- ma lapurtzeak helburu bakarra izan dezake, merkatu beltzean saldu eta aberastea.

“Nire lagun estralurtarra”... Louis de Funesen pelikulak datozkit gogora. Frantziako Polizia Guardia Zibilaren pare, alajaina; broma bat dirudi, baina esango nuke urte askotako harrema- nen ondorioa dela.

Uniforme berde oliba hori zuritzeko adina kasu badu Guardia Zibilak droga lapur gisa. Nonbait, tentazio iturri da konfiskatutako droga bere zaintzaile-

entzat... lapurreta zuriagorik? Ziur eus- kal gazteria menpeko bilakatzeko bi- deratua izan dela asko eta asko...

Ederra paradoxa; ETak eta Bakearen Artisauek egin armen entregatzeko ekintza, interes politiko gaiztotuek gu- txietsia izan zena, orain, aitzitik, poli- ziaren ustelkeriak sinesgarritasuna itzulia.

Ertzaintza ere polizia egin gaitezen erreklamatzan ari den honetan... hain- besteko mesfidantza sortzen duten he- rritarron zaindaria nork zaindu behar ditu? •



# TEKNOPEDAGOGIA

## UEUk «IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan» argitaratu du EHUrekin

HEZKUNTZA / UEU

**L**iburua aurkeztu zuten prentsaurrekoan Kepa Sarasola Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendariak eta Mikel Iruskietak, Montse Maritxalar eta Amaia Arroyo-Sagasta liburuaren editoreek. «Teknopedagogiaren ikuspuntutik, hezkuntza arloko adituen formakuntza eta inpli-

«IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan» izeneko liburua argitaratu du UEUk UPV/EHUrekin koedizioan. 2016-2017 ikasturtean bi erakunde hauek martxan jarritako graduondokoa dago liburuaren oinarrian eta 32 adituk osatu dute. Mikel Iruskietak, Montse Maritxalar, Amaia Arroyo-Sagasta eta Abel Camacho bertako arduradun eta irakasleek egin dituzte edizio lanak.

Ezkerretik eskuinera, Mikel Iruskietak, Montse Maritxalar, Kepa Sarasola eta Amaia Arroyo-Sagasta.  
UEU

kazioaren beharra areagotzea da», Montse Maritxalarren esanetan, «IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan» UPV/EHUren berezko tituluaren atzean dagoena. Eta soka horri helduta dator joan den asteartean aurkeztu zuten argitalpen hau. Liburuak norbere ikaskuntza hobetzeko eta teknologiak ekar diezaiokeen balio erantsia erakusteko balio beharko lukeela dio Mikel Iruskietak.

Era berean, maila akademikoan hezkuntza eta teknologia gaiak jorratzen dituen euskarazko argitalpen baten hutsunea zegoela ere azpimarratu zuten editoreek. Liburuak teknopedagogiaren gai, ikuspuntu eta joera nagusien egungo egoeraren berri ematen du eta hori «oso baliagarria gerta daiteke hezkuntzaren testuinguru gehienetako ikasle nahiz irakasleentzat».

### ORAIN DA UNEA

Liburuaren egileen ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizaratearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoa- ren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Liburuan atal oso bat dago gai hori lantzeko. Esaterako, irakurleak arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen eza-





gutuko du; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzote. Izan ere, teknologiaren ikuspegi positiboa lantzen dute liburuan.

Ikerketa eta hezkuntza proiektuak garatzeko unean gaur egun teknologia eskaintzen dizkigun hainbat aukera ere azaltzen dira liburuan, lizentziak eta legediarekin lotutako kontuak ahaztu gabe. Iruskietak dio gai anitz jorratu izanak liburua hartzen duen edonori bere intereseko zer-bait aurkitzeko aukera eman-go diola.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, *e-learning* testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologia jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren eta teknologiaren arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu dituzte liburuan. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta. Euskal hezkuntza arloko teknologian aditu eta arituen eskutik. Liburutik aparteko notiziak, ikasleen lanak eta irakasgaie-tako laburpenak eta eskolan erabiltzeko zenbait material deskargatu [www.hezikt.eus](http://www.hezikt.eus) webgunean aurkituko duzue.

Kepa Sarasola UEUko zuzendariak argitaletxe moduan egiten duten lana azpimarratu nahi izan zuen: «Liburugintzaren alorrean UEUren helburua bikoitza da: azpiegitura bibliografikoa sortzea,



## IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan

Mikel Iruskieta  
Montse Maritxalar  
Amaia Arroyo-Sagasta  
Abel Camacho

**Maila akademikoan hezkuntza eta teknologia gaiak jorratzen dituen euskarazko argitalpen baten hutsunea zegoela ere azpimarratu nahi izan zuten editoreek**

**Askotariko gaiak eskaintzen ditu liburua, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta, euskal hezkuntza arloko teknologian aditu eta aritu ugariren eskutik**

batetik, eta arlo teknikoetan euskarazko terminologia eta sintaxia finkatzea, bestetik. Unibertsitate-mailako ikasketan zein ikerketan bibliografia zabala edukitzea ezinbesteko baldintza da unibertsitate-eredu osasuntsu bat lortzeko. 1978. urtean lehen liburua argitaratu genuenetik, dagoeneko 463 izenburu ditugu gure katalogoan, eta unibertsitate-

mailako euskarazko testuinguntzan dekanok bilakatu gara. Gaur aurkezten dugun liburu hau, UPV/EHUrekin koedizioan argitaratu dugu, eta guretzat elkarlan hau ezinbestekoa da orain aipatu ditugun helburuak lortzeko bidean. E-maila ederrak ematen ari da bi erakundeen arteko lana, eta aurrerantzean ere horrela izatea espero dugu».

## IKASLE-IRAKASLEEN ARTEAN IKERTZEN DUEN KOMUNITATEA, BAT

Liburu mardula izan arren, irakurteraza da “IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan”, gaika antolatuta baitaude bertako artikulu guztiak. 376 orrialde horietan aurkitzen diren ideia interesgarri eta praktikoak hezkuntza eta teknologia arloko aditu hauek idatzi dituzte: Itziar Aldabe Arregi, Jon Altuna, Nere Amenabar Perurena, Lorea Aretxaga, Amaia Arroyo-Sagasta, Abel Camacho, Urko Fernandez Roman, Raket Gamito Gomez, Urtza Garay, Xabier Gardeazabal, Josune Gereka, Maite Goñi, Lourdes Guardia, Make Irigoien, Jennifer Isasi, Gorka Julio, Mikel Iruskieta, Aitziber Iturricastillo, Mikel Larrañaga, Ainhoa Latatu, Hiart Legarra Uruburu, Oier Lopez de la Calle, Montse Maritxalar, Xabier Mujika, Inma Muñoa, Iñaki Murua, Juanan Pereira, Josi Sierra, Iñaki Telleria, Andoni Tolosa, Maialen Urbieta eta Arkaitz Zubiagak.


Egileon ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologia eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologia berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanaz; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

«Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertuz eta horietako zenbait gabezia betez, nazioartean egiten ari direna kontuan izanik? Galdera horri erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu nahi izan dugu liburu honetan, *online* irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa,

ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculumaren inplementatzeko aukera, besteak beste. Bestalde, teknologia dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan ditugu».

Horien guztien bilgune, eztabaidagune eta ikergune izateko asmoz sortu zituzten [www.hezikt.eus](http://www.hezikt.eus) webgunea eta UPV/EHUren “HEZikt: IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan, eta Hizkuntzen Irakaskuntzan” graduondokoa, UEUren laguntzaz. «Orain, liburu hau ere bide horretan laguntzera dator: ikasle-irakasleen artean ikertzen duen komunitatea batu dugu liburu honetan, eta euskarak eta hiztun komunitateak behar dituzten tresnak, baliabideak eta metodologia interesgarriak aipatu eta aztertu ditugu».





Haizea Alonso. Juanan RUIZ | FOKU

# infraganti HAIZEA ALONSO

Ez da hilabete bat igaro «Nire bala» izeneko abestia Youtuben argitaratu zuenetik eta dozenaka mila ikustaldi izan ditu Haizea Alonso rap kantari gaztearen bideo klipak. Eguneroko hainbat egoerak eragiten dioten amorrua kanporatzeko tresna du rapa, eta bere estilo propioaren bila, laster bigarren abestia argitaratuko du.

**E**makumea, gaztea, arabarra, solidarioa... Zertzelada horien guztien inguruko eguneroko bidegabekeriek eragindako amorrua kanporatzeko bala bat jaurti du: "Nire bala". Eta milaka lagunengatik gustuko bala izan da. Bere kantaren bideo klipak 55.000tik gora sarrera izan ditu Youtuben lau aste-tsuko epean. Pozik dago, eta ez du disimulatzen, baina ez zuen halakorik

espero, inondik inora. «Igo nuenean, lehenengo orduan begiratu eta ia 2.000 ikustaldi zeudela ikusi nuen etxean. 'Ama, begira!'. Lagunak ere, flapatuta». Egunak joan ahala gora eta gora egin du ikustaldi kopuruak. Urizaharreko eta Gasteizko alde zaharreko lagunek ikustea espero zuen, baina ez ondoren ikusi duena. Dagoeneko hasi zaizkio galdetzen ea noizko hurrengoa.

## «NIRE BALA»

Joan den uda amaierako arratsalde batean idatzi zuen abestia. Lagunek zerbait atera behar zuela esan zioten, eta proba bat egitera animatu zuten, egiten duena jendearen gustukoa izan zitekeen jakiteko besterik ez bazen ere. «Amorru pixka batekin» idazten hasi zen eta luze gabe atera zuen abestia goiz batean zenbait lagunekin Gasteizko alde zaharrean grabatutako bideoan. Letra horiek egiteko etorria inguruko egoerek eman diotela dio, egoera horiek salatu beharrak, alegia. Eguneroko ikusten denagatik sentitzen duen amorruren isla da bere kantua. «Nire bala», nabarmendu du, abestiaren izenburua gogorarazita.

Ezin hobeto laburbiltzen du bere abestia bertsootan: «Nire olerkiaren hitzez betetako bala/ Mintzen gaituenaren kontrako aterki bat bezala». Errealitatea islatzen duen abestia da, eguneroko bizi eta inguratzen duena ez ezik, «baita batzuetan ditugun kontraesanak ere», eta abestiaren beste pasartetxo bat gogorarazi du: «bizirauteko lehentasunak modek ezartzen dizkigute/ azkenengo iphone-a erosi urteko ogiaren truke», dioenez, gure bizitzan eguneroko dauden kontraesanen isla.

«Gure gaurko panorama, rapa nola dagoen Euskal Herrian, euskal rapean ia emakumerik ez dagoela ikusita, jendeak Euskal Herriko rapean emakumeak badaudela ikustea, hori atera nahi nuen lehenengo abestian, bideo on batekin».

Burutik burura bideo klip aldarrikatzailea da, arlo asko ukitzen dituen, eta idaztean sentitu zuen amorru hori zinez transmititzen duena. Zabaltzen ari diren joko aretoak, «prekari-tatearen aurka, langile borroka», okupazioa, arabartasuna... «Behingoz Arabako mapan rapa kokatzea nahi nuke. Araban rapero asko izan da, eta da, baina Araba pixka bat aparte gertzen da. Beharbada, ez da ondo aldarrikatu, eta nik Arabako rapa aldarrikatu nahi dut, Euskal Herriko rapean emakumeak ere bagaudela eta Araban ere bai». Arabaren aldarrikapen horretan kalitateko gauzak egiten direla dio, eta umore ukitu bat emanda, patata aipatzen du kantuan. «Arabian patatak badaude, baina ez bakarrik», dio barrez, «baina patatak ere bai». Eta, «jakina», euskara ere bada aldarrikapen nagusietakoa: «euskaraz egitea bera aldarrikapen bat dela uste dut».

Musika instrumentala Internetetik hartu zuen, «jendeak egiten dituen base horietako bat erabili dut bideoarako».

## RAPA, «ERREMINTA»

Urizaharrean jaio zen Haizea, Arabako mendialdean, eta bertan bizi da. Gasteizen menpekotasun egoeran dagoen jendearentzako arretarako ikasketak egiten dihardu, «oso gustura», ikasketok bere bokazioarekin bat datoz eta.

Aspaldikoa du raparekiko grina, baina bestelako musika ere gustukoa du. 18 urte baino ez baditu ere, «nahikoa pun-





Gasteizko alde zaharrean. Juanan RUIZ | FOKU

«kia» izan da txikitatik, gurasoek jartzen zuten musika entzuten ohituta: Hertzainak, La Polla... baina badu, esate baterako, Sex Pistols-en berri ere. Bederatzi urte zituenetik gitarra jotzen zuen, «baina egiten nuenari ez nion puntu hori hartzen eta orain dela pare bat urte-edo rap egiten saiatzen hasi nintzen». Bertsolaritza ere ezagutu du; izan ere, iaz bertso eskolan jardun zuen, baina bere «erreminta» musika mota guztiak ditu gogoko, denetatik entzuten du, baita musika lasaia ere, eta Olatz Salvador eta Izaro aipatu ditu.

Inprobisatuz hasi zen kantuen egiten, modu informalean, «lagunekin parrandan». Geroago, etxean idazten. Ba-

tzuetan erritmo bat jarrita idazten ditu bat-bateko letrak; beste batzuetan, berriz, autobusean, etxean, edonon, esaldiak burura etorri eta berehala idazten dituzakelakoan edo koadernoan. Zenbaitetan idatzitako esaldiak hartu eta nahasteak egiten ditu. «Gero igual ez dut gustuko izaten eta guztia ezabatu dut».

#### **BIGARRENA, LASTER**

Jende askok bidali dio bere mezua abestia entzun ondoren. Ezagutzen duen jendeak eta

**«Araba pixka bat aparte geratzen da. Beharbada, ez da ondo aldarrikatu, eta nik Arabako rapa aldarrikatu nahi dut, Euskal Herriko rapean emakumeak ere bagaudela, eta Araban ere bai»**

**Hainbat lagunek gai berrien zain daudela diote, eta badirudi ez dutela luze itxaron beharko, gauzak ondo bidean, otsailean beste abesti bat igotzeko asmoa dauka-eta, «sorpresatxo bat»**

ezagutzen ez duenak, Euskal Herrikoak, Kataluniakoak, Andaluziakoak, Galiziakoak... Odei Barroso bertsolari eta raperoak ere mezua bidali zion,

eta zorionak eman zizkion, baita gauza gehiago egiteko adorea ere. «Kristoren poza hartu nuen», dio Haizeak.

Batzuek ez dutela abestia ulertu baina oso ona

iruditu zaiela esan diote. Edonola ere, ikusle batek mezu batean itzulpena jarri zuen. Abestiaren erritmoa edo bideoaren estetika txalotu dute askok, eta

bada Haizearen ahotsa ere nabarmendu duenik. Beste batzuek haren gai berrien zain daudela diote, eta badirudi ez dutela luze itxaron beharko.

Izan ere, jarraitzeko asmoa du gazte arabarrak eta, gauzak ondo bidean, otsailean beste abesti bat igotzeko asmoa dauka, «sorpresatxo bat». Ez daki oraindik bakarrik agertuko den, ezta berriro Gasteizen edo beste leku batean grabatuko duen ere, baina laster atera nahiko luke bigarren bideoa. Lehenago, iragarpen bat egingo du. Aldarrikatzen jarraitu nahi du: «Ikusiko dugu, batzuetan beharbada nire paranoiak botatzeko balioko dit, baina rapa erreminta bezala erabil daiteke», musika mota guztiak bezala, jakina, eta hainbeste jendek entzuten badu, mezua zabaltzeko erreminta aproposa dela uste du. Gai konkretuagoekin ere zerbait egiteko asmoa duela dio.

Orain bere estiloaren bila dabil, «rapean dauden puntu ezberdinak jo nahiko nituzke, egur gehiago emanez, lasaiagoak ere bai... gauza ezberdinak jo, benetan gustuko dudana aurkitu arte». Momentuz horrela segitzea baino ez du pentsatu, «bakarrik edo besteren batekin, aukera sortzen bada, eta gero gerokoak». Horrela jarraituko du, eta «ez dut uste inoiz aspertuko naizenik».

Beraz bere lehen proiektua gustuko rap bat egitea da. «Eta adore eman didan jende andanari eskerrak ematea».

Idaztea, beretzat, «laguntzen duen zerbait da, barruan duzun guztia kanporatzeko balio du». Rapa bezala: «Barruko gauza horiek botatzeko bidea, eta aldarrikatzeko erreminta». •

Xabier Izaga Gonzalez





**Garazi Goia - @GaraziGoia**  
Idazlea

## Amaren pisua

**F**esta publiko bat egitea onartu dute Parlamentuan eta urtarrilaren 31n Londresko Parlamentuko plazan bilduko dira Brexitaren jarraitzaileak berrogeita zazpi urteko garaiaren amaiera ospatzeko. Historian gertatu den dibortzio politiko esanguratsuenetako bat izateko bidean dagoen gertaera horren atarian gaudela, eta ukatzen ari ginena «benetan» gertatzeko zortzi egun baino gelditzen ez direnean, inoiz baino albiste gutxiago dago entzungai telebistan. Konspirazioetan sinesen duten haiek esango dute diseinuz gertatu dela. Itzalean gelditu da bat-batean Brexit, ipuinetakoa ez bezalako printzesa baten istorioak itzalean utzi du. Erresuma Batuko monarkia dantzan jarri du Harry eta Meghan Markle Sussexeko duke-dukesen erabakiak, egiteko ofizialetatik atera eta Kanadara alde egin dutenean.

Ironikoki beste banaketa bat hemengo egunkarieneztat eta bitartean espazio pixka bat Boris Johnsonentzat. Distrakzio bat, arnasa hartu eta bere garaipena oraindik lasaiago berretsi dezan. Zergatik ateratzen zaizkie batzuei gauzak beti beraiek nahi duten moduan? Leloek zortea aldeko duten hori akaso.

Prensa sentsazionalista eta monarkikoen istorio aspergarri eta baliogabeen ondoan, amaren heriotzaren eraginak dukearen bizitza zenbat markatu zuen gaitzat hartuta egindako analisi psikologiko interesgarri bat edo beste irakurri dut. Ez da nire intentzioa interesatzen ez zaidan gai bati buruz lerroak biltzea, baina amaren gabezia horren gaiari heltzeko aprobetxatuko dut. Izan ere, «Ama» izenburuko liburua izan da urte honetako nire lehenengo irakurketa. Jose Ignacio Carnerok, Portugalen jaiotako idazleak,

gaztelaniaz idatzitako nobela autobiografikoa da, bere amaren galera kudeatu ahal izateko terapia bezala definitua kritiko batzuen hitzetan.

**Bere ama hil aurreko hilabeteetan eta batez ere ostean egiten duen gerturatze emozionala biltzen du liburuak. Ibilbide heuristiko garden baten kontaketa da, hotsun eta zuzentasun handiz idatzia, onestegia askotan, amarekin eta amarentzat egin ez zituen gauzak behin eta berriz argitara ekartzen.** Aitormen lotsagabe horiek baliteke batzuetan sinesgarritasuna zalantzan jartzea, batez ere bere burua hainbeste apaltzen duenean, askotan muturrekoak diruditen auto salaketa eta kulpas erasoak bere buruari inposatzen dizkionean. Benetan hori al zen sentitu zuena? Damua gailentzen den konfesio binario

horretan, noizbehinka alde grisago bat faltan bota dut; baina, narrazioak loratzen dituen sentsazioengatik egin nahi nuen aipamen bat. Esan behar, baita ere, bizipen pertsonalen kontaketa gain, langile klaseko emakumeen aldarrikapena eta 80ko hamarkadan Bizkaira etorri ziren Espainiako immigranteen perspektiba interesgarriak ere biltzen direla.

Mundu honetatik azkarregi joateaz ari zen Carnero eta beste ustekabeko heriotza baten albiste tristea jasotzean horretaz aritu nintzen aurreko astean. Azkarregi zen, hainbeste zeukatenean bizitzari eskaintzeko. Horrelako bat gertuan tokatzen zaigunean bakarrik ohartzen gara azkarregi horren garrantziaz. Baina, ohartu eta gure bizitza azkarrekin jarraitzen dugu. Ez dakit Carnerok egiten duen ariketak zenbateraino balioko zion, baina pausatzearen balioa gutxietsita dagoela ziur nago. •



Brexitari ez, Harry eta Meghani begira daude fokoak. Tolga AKMEN | AFP



# BEHATXULO [ ] TIK

Juantxo EGAÑA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - FORU ARTXIBOA. R.267/0042N

## DUELA MENDEBETEKO BILBOKO ZILARGILEAK

1911ko uztaillean, Luis Anduizaren elkarteak, zilarrezko, metal zuri zilarreztatuzko eta alpazko mahai-tresnak egiten zituenak, ohorezko sari handia irabazi zuen Buenos Airesko Erakusketan, garaiko hedabideek zabaldu zuten, bere zilargintza eta bitxigintza objektu artistiko eta balio handikoengatik. Elkarte hori 1884an sortu zen, eta Europa mailako zilargintza fabrika garrantzitsuenetakotzat jotzen zuten XIX. mende amaieratik. Bitxigintza fabrika eta bulego zentrala Bilboko Posta kaleko 5. zenbakian zegoen, eta zilar-lantegiak, Gordoniz kaleko 22. zenbakian. Besteak beste, kalizen, ur-ardo ontzien, ziborioen, koroen eta apain-mahaiko zerbitzuen fabrikazioa iragartzen zuten, eta beren iragarkietan hainbat hotelen, kasinoren, jatetxeren, kafetegiren eta Itsas Armada espainolaren hornitzaile zirela agertzen zen. XX. mende hasieran erlojugile gisa agertzen zen zenbait iragarkitan. Artikulua ilustratzen duen argazkia Luis Anduiza zilar eta bitxi fabrikan egin da, 1920 aldera. Haren egilea ezezaguna da. Bertan emakume talde bat ageri da lanean, mahai-tresnei distira ematen zieten tailerrean. 1927an, Anduiza zilargintza lantegiko langile horietako batek, Angela Otxoa zilargileak, zilar-lantegi bat zabaldu zuen Donostian bere senar Pedro Satostegirekin.



**GAUR8**



*ireki gure leihoa*

